

**ENSEMBLE SICILIANO**  
**Mozart vs Brahms Zikloa**  
**Victoria Eugenia Antzokia**  
**Maiatza 22 Mayo**  
**12:00**

**EGITARAUA / PROGRAMA**

- Mozart:
  - Trio para piano K.548
  - Cuarteto para flauta No. 1
  
- Brahms:
  - “Wie bist du meine Königin”, “O liebliche Wangen” (transcrito para flauta y piano)
  - Cuarteto para piano No. 3

**MUSIKARIAK / INTÉRPRETES**

**ENSEMBLE SICILIANO:**

**Julia Siciliano** (pianoa piano), **Adriana Ferreira** (flauta flauta), **Dmitri Makhtin** (biolina violín), **Rumen Cvetkov** (biola viola), **Kyryl Zlotnikov** (biolontxelo violonchelo)

**Ensemble Siciliano taldeak Mozarten eta Brahmsen ganbera-musikako lanak interpretatuko ditu berriro ere. Oraingo honetan, instrumentu berri batek bat egingo du taldearekin: flauta. Adriana Ferreira izango da kide berria, Orchestra dell'Accademia Nazionale di Santa Cecilia taldeko flautista bakarlaría, hain zuzen ere.**

Nuevamente el Ensemble Siciliano interperará obras de cámara de Mozart y Brahms, esta vez con un nuevo instrumento que se incorpora a la formación, la flauta, que será interpretada

por Adriana Ferreira (flauta solista de la Orchestra dell'Accademia Nazionale di Santa Cecilia).

## JULIA SICILIANO



«Sormen bikaina» duen musikari gisa iragarri du Bonngo General-Anzeiger aldizkariak Julia Siciliano kontzertu-pianista saritua. Orchestra ospetsu eta jaialdi askok gonbidatu izan dute bakarleri gisa, Blue Ash Montgomery Symphony Orchestrak duela gutxi. Sari nagusiak irabazi ditu Heida Hermanns Nazioarteko Lehiaketan, Iowako Piano Lehiaketan, MTNA Lehiaketa Nazionalean eta Beethovenen Sonata Lehiaketan; ganbera-musikari gisa ere lan handia egiten du, Cincinnatiko Orkestra Sinfonikoko ganberako kideekin jotzera gonbidatu izan dute, eta errezitaldi ugari eskaini ditu Amanda Pabyan, Eric Owens eta Marina Domashenko Metropolitan Operako izarrekin.


Karrera profesional aktiboa du bakarleri gisa zein ganbera-musikan, Ipar Amerikako, Erdialdeko Amerikako, Europako eta Asiako hainbat eszenatokitan. Zenbait aldiz jo du zuzenean Chicagoko WFMT irrati-estazioan, Detroiteko Scarab Club historikoan, Cincinnati Music Hallen, New Yorkeko Bulgariako Kontsulatuan, Tokioko Kioi Hallen, Scicliko Palazzo Spadaron Italian, Sioux Cityko Orpheum Antzokian Iowan, Guatemalako Antzoki Nazionalean, Parvis de l'église Notre-Dame d'Espérance Cannesen, St. Emiliongo Château Haute Sarpe-n eta Bonngo Deutsche Telekom-en egoitzan.

*Dream Catchers* album bikoitzarekin egin zuen debuta bakarleri gisa, Beethoven, Schumann, Schubert, Ravel eta Debussyren eskala txikiko obrak eskainiz, eta arrakasta handiz kaleratu zen 2016an. *Fanfare* aldizkariak adierazi zuenez, «disko honek musikariaren ibilbideko mugarri bat izatearen meritua du», eta ez du «inolako zalantzarik uzten Sicilianok musikaz duen ikuspegiaren debozioari eta seriotasunari dagokienez». Pianista honen «teknika fina eta musikaltasun naturala» goraiatu zituen *Gramophone* aldizkariak, eta Debussyren *Images II.*aren lanean sumatzen diren «fintasun bikaina, mugimendu harmonikoa eta sinkronizazioa» azpimarratu zituen.

La galardonada pianista de concierto, Julia Siciliano ha sido anunciada como música con «fabuloso poder creativo» por el Bonn General-Anzeiger. Julia Siciliano ha sido invitada como solista artista de muchas orquestas prestigiosas y festivales, más recientemente con Blue Ash Montgomery Symphony Orchestra- Julia ha ganado los principales premios en el Concurso Internacional de Heida Hermanns, Concurso de Piano de Iowa, Concurso Nacional de MTNA y Sonata de Beethoven Competencia: Activa como músico de cámara, Julia ha sido invitada a tocar con los componentes de cámara de la Orquesta Sinfónica de Cincinnati, y ha dado numerosos recitales con las estrellas de Metropolitan Opera Amanda Pabyan, Eric Owens y Marina Domashenko.


Julia tiene una carrera profesional activa tanto en música solista como de cámara en distintos escenarios de América del Norte, América Central, Europa y Asia. Ha actuado varias veces en vivo en la estación de radio WFMT de Chicago, el histórico Scarab Club de Detroit, el Cincinnati Music Hall, el Consulado de Bulgaria en la ciudad de Nueva York, el Kioi Hall en Tokio, Palazzo Spadaro en Scicli, Italia, el Teatro Orpheum en Sioux City, Iowa, Teatro Nacional de Guatemala, Parvis de l'église Notre-Dame d'Espérance en Cannes, Chateau Haute Sarpe en St. Emilion y la sede de Deutsche Telekom en Bonn.

Su álbum debut como solista *Dream Catchers*, un álbum de dos discos con obras a pequeña escala de Beethoven, Schumann, Schubert, Ravel y Debussy, se lanzó en 2016 con gran éxito. La revista *Fanfare* declaró que «este lanzamiento tiene mérito como un hito en su carrera» y no deja «ninguna duda sobre la devoción y la seriedad del enfoque de Siciliano hacia la música». La revista *Gramophone*



elogió su «técnica fina y musicalidad natural», destacando su «delicadeza magistral, movimiento armónico y sincronización» en Imágenes de Debussy II.

## **ADRIANA FERREIRA**



**Gaur egun flauta solista da Erromako Santa Zezilia Akademia Nazionaleko Orkestran. Aurretik, flauta nagusikidea izan zen Frantziako Orkestra Nazionalean eta flauta solista Rotterdameko Orkestra Filarmonikoan.**

**Flautako nazioarteko lehiaketa ospetsuetan lortu ditu sariak, nabarmenenak izanik: lehen saria, orkestraren saria eta entzule gazteen saria Carl Nielsen Nazioarteko Lehiaketan (Danimarka); hirugarren saria Kobeko Lehiaketan (Japonia); lehen saria eta sari berezia Luciano Berioaren Sequenzaren interpretazioagatik Severino Gazzelloni Lehiaketan (Italia); eta ex-aequo bigarren saria (lehenengo esleitu gabe gelditu zen) eta Coup de Coeur Breguet saria, Genevako Nazioarteko Lehiaketan (Suitza).**

**Hiru disko grabatu ditu bakarlari gisa, bi disko Isolda Crespi pianistarekin eta beste bat Lorenzo Souless pianistarekin eta Genevako Ganbera Orkestrarekin, Lucas Macías Navarroren zuzendaritzapean. Musikako hainbat jaialditan jo du (Kopenhage, Kuhmo, Giverny, Monte-Carlo,...) eta solista gisa Lisboako Gulbenkian Orkestrarekin, Odense, Hanoi-Vietnamgo Sun Symphony eta Kolonia, Geneva eta Moskuko Kremlineko Ganbera Orkestrekin, besteak beste.**


**Cabeceiras de Basto-n (Portugal) jaioa, Adriana Ferreirak flauta ikasi zuen Artave Eskola Profesionalean, Joaquina Mota irakaslearen eskoletan. Beka bat lortu zuen Lisboako Calouste Gulbenkian Fundazioaren eskutik; Sophie Cherrier eta Vincent Lucas-en eskoletan parte hartu zuen Parisko Musikako Goi Mailako Kontserbatorio Nazionalean; han egin zituen goi mailako hiru zikloak. Benoît Fromanger-ekin ikasi zuen Berlingo Hanns Eisler Goi Mailako Eskolan eta musikologiako lizentzia lortu zuen Paris-Sorbonneko Unibertsitatean.**

Es actualmente flauta solista de la Orquesta de la Academia Nacional de Santa Cecilia en Roma. Anteriormente, trabajó como flauta co-principal en la Orquesta Nacional de Francia y como flauta solista en la Orquesta Filarmónica de Rotterdam.

Ha sido galardonada en prestigiosos concursos internacionales de flauta, destacando el primer premio, el premio de la orquesta y el premio del público joven en el Concurso Internacional Carl Nielsen (Dinamarca); tercer premio en el Concurso de Kobe (Japón); primer premio y premio especial por su interpretación de la Sequenza de Luciano Berio en el Concurso Severino Gazzelloni (Italia); y el segundo premio ex-aequo (primer premio no atribuido) y el premio Coup de Coeur Breguet, en el Concurso Internacional de Ginebra (Suiza).

Ha grabado tres discos como solista, dos con la pianista Isolda Crespi, y otro con el pianista Lorenzo Souless y la Orquesta de Cámara de Ginebra, dirigida por Lucas Macías Navarro. Ha tocado en distintos festivales de música (Copenhagen, Kuhmo, Giverny, Monte-Carlo,...) y como solista con la Orquesta Gulbenkian de Lisboa, Odense, Sun Symphony de Hanoi-Vietnam y las Orquestas de Cámara de Colonia, Ginebra y Kremlin de Moscú, entre otras.

Natural de Cabeceiras de Basto (Portugal), Adriana Ferreira estudió flauta en la Escuela Profesional Artave, en la clase de la profesora Joaquina Mota. Becada por la Fundación Calouste Gulbenkian de Lisboa, formó parte de la clase de Sophie Cherrier y Vincent Lucas en el Conservatorio Nacional Superior de Musica de París, donde completó los tres ciclos superiores. También estudió con Benoît Fromanger en la Escuela Superior Hanns Eisler de Berlín y es licenciada en musicología por la Universidad París-Sorbona.



## DMITRI MAKHTIN



San Petersburgon jaio zen 1975ean, eta lau urterekin hasi zen musika lantzen, gurasoekin, biak biolin-jotzaile profesionalak baitziren. 1981ean haur gaindohatuen Musika Eskolan sartu zen. 1989an, lehen saria irabazi zuen biolinista errusiarren lehiaketan. 1990ean, Musikari Gazteen Fundazioaren eta Idyllwild Arte Akademiaren (Kalifornia) beka bat lortu zuen, eta gero P. Hirshhorn eta H. Krebbersekin ikasi zuen. 1997an egin zuen debuta Parisen Errusiako Federazioko Estatu Orkestra Sinfoniko-Akademikoarekin, Yevgeny Svetlanoven gidaritzapean, eta 1998an Estatu Batuetan, Clevelandeko orkestrarekin, Leonard Slatkinek zuzendurik. Harrezkero, Ural, Monte Carlo, Marseilla, Hong Kong, Pragako Hiria, Radio Frantzia eta San Petersburgoko orkestra filarmonikoekin aritu da, besteak beste. San Petersburgo, Lisboa, PietraSanta, La Folle Journée de Nantes, La Roque d'Anthéron, Menton eta Salzburgoko jaialdietara gonbidatu ohi dute. Errezitaldiak eta ganbera-musika ere eskaintzen ditu munduko lekurik ospetsuenetan, nola diren Bruselako Arte Ederren zentroa, New Yorkeko Lincoln Center, San Petersburgoko Filarmonika, Moskuko Pushkin museoa, Pariseko Pleyel aretoa eta Amsterdameko Concertgebouw. Dmitri Makhtinek Shostakovitxen 2. trioari eta Rachmaninoffen 2. trioari eskainitako CD bat grabatu du, Boris Berezovsky eta Alexander Kniazevekin batera, Warner Classicsen, eta Choc de la Musique, Gramophone eta Echo Classic Awards sariak irabazi ditu. Gainera, bi kide horiekin berekin, Txaikovskiren obren CD bat ere grabatu du, ARTEn eta NHKn argitaratu dena, eta Diapason d'Or bat jaso du. Dmitri Makhtinek Jean-Baptiste Vuillaumek 1863an egindako biolin batekin jotzen du.

Nacido en San Petersburgo en 1975, Dmitri Makhtin comenzó su educación musical a la edad de cuatro años con sus padres, ambos violinistas profesionales, y se unió a la Escuela de Música para niños superdotados en 1981. En 1989, ganó el primer premio en el concurso de violonistas rusos. En 1990, obtuvo una beca de la Fundación de Jóvenes Músicos y de la Academia de Artes Idyllwild (California), y luego estudió con P. Hirshhorn y H. Krebbers.

Dmitri Makhtin hizo su debut en 1997 en París con la Orquesta Sinfónica Académica Estatal de la Federación Rusa, bajo la batuta de Yevgeny Svetlanov, y en 1998 en los Estados Unidos con la Orquesta de Cleveland, dirigida por Leonard Slatkin.


Desde entonces, ha actuado con las orquestas filarmónicas de Ural, Monte Carlo, Marsella, Hong Kong, Ciudad de Praga, Radio Francia y San Petersburgo, entre otras.

Dmitri Makhtin es invitado regularmente a festivals como los de San Petersburgo, Lisboa, PietraSanta, La Folle Journée en Nantes y Tokio, La Roque d'Anthéron, Menton y Salzburgo.

También ofrece recitales y música de cámara en los lugares más prestigiosos del mundo: el Centro de Bellas Artes en Bruselas, el Lincoln Center en Nueva York, la Filarmónica de San Petersburgo, el Museo Pushkin en Moscú, la Salle Pleyel en París y Concertgebouw Amsterdam.

Dmitri Makhtin grabó en Warner Classics, con Boris Berezovsky y Alexander Kniazev, un CD dedicado al Trio n.º 2 de Shostakovich y al Trio Elégiaque n.º 2 de Rachmaninoff, que ganó Choc de la Musique, Gramophone y Echo Classic Awards.

Además, con estos dos socios, grabó un CD de las obras de Tchaikovsky, que se publicó en ARTE y NHK y se le otorgó un Diapason d'Or. Dmitri Makhtin toca con un violín Jean-Baptiste Vuillaume desde 1863.



**RUMEN CVETKOV**



**8 urterekin bakarleri gisa debuta egin zuenetik, Rumen Cvetkov bulgariar biolinistak 40 herrialdetan eta 4 kontinentetan eskaini ditu emanaldiak, munduko agertoki garrantzitsuetan: Berliner Filharmoniker Hall, Carnegie Hall (New York), Wigmore Hall (Londres), Mozarteum (Salzburgo), Walt Disney Hall (Los Angeles), Pallacio de Bellas Artes (Mexiko), Chicago Symphony Center, DESINGEL Concert Hall (Anberes), Bulgaria Hall. Hainbat jaialditan parte hartu du, besteak beste, Kuhmo Festival, Ravinia, Itsaso Gorriko Jaialdia (Israel), San Moritz, Atenas, Zagreb, Mimir, Bruman, I Palpiti, Ascoli Piceno (Italia), eta "Musika Hiri Zaharra" eta "Europako Kulturaren Hilabetea".**

**Rumen Cvetkov historiako musikari handienetako batzuekin batera aritu da: Ida Haendel, Bernard Greenhouse, Mihail Muntian, Sir Harold Martina, Jose Feghali, Christian Tetzlaff, Vladimir Mendelssohn, Roger Chase, Michael Flaksman, Jose Gallardo, Ensemble Oriol (Berlin), Persius Ensemble; eta Borromeo, Kronos, Aviv, Jerusalem eta Verdi laukoteetako kideekin. 2007ko udazkenean Yo Yo Ma-ren Silk Road Project-ekin jardun zuen lankidetzan, Chicagoko Arte Museoak antolatutako kontzertu batean. Biola-jotzaile bakarleri gisa jardun du orkestra hauekin: Tonhalle Zurich, Brandenburgoko Sinfonikoa, Mannheimer Philharmoniker, Dallas Chamber Orchestra eta Bach Collegium, zuzendari izan dituela, besteak beste, Bernard Haitink, Herbert Bloomstedt, Riccardo Chailly, Zubin Mehta, Myun Wun Chung, Kent Nagano, Paavo Jarvi, Robert Trevino, Enrique Batiz, Placido Domingo, Rossen Milanov, Alan Gilbert.**


**Simon Schodler-ek 1785 inguruan egindako hainbat biola jotzen ditu bere kontzertuetan, eta baita "Denbora" (The Time) deitua ere, Giuseppe Ghiacchetti di Romaren italiar biola, eta, azken boladan, Timofey Podgorny "Errusiar Stradivari" delakoak sortutako biola, "Poeta" deitua.**

Desde su debut como solista a 8 años, el violista búlgaro Rumen Cvetkov ha actuado en 40 países en 4 continentes y en los escenarios más importantes de todo el mundo como Berliner Filharmoniker Hall, Carnegie Hall (Nueva York), Wigmore Hall (Londres), Mozarteum (Salzburgo), Walt Disney Hall (Los Angeles), Pallacio de Bellas Artes (Mexico), Chicago Symphony Center, DESINGEL Concert Hall (Amberes), Bulgaria Hall, entre otros. Sus apariciones en festivales incluyen Kuhmo Festival, Ravinia, Festival del Mar Rojo (Israel), San Moritz, Atenas, Zagreb, Mimir, Bruman, I Palpiti, Ascoli Piceno (Italia), así como "Musica en la Ciudad Vieja" y "Mes de la Cultura Europea".

Rumen Cvetkov ha compartido el escenario con algunos de los músicos más grandes de la historia como Ida Haendel, Bernard Greenhouse, Mihail Muntian, Sir Harold Martina, Jose Feghali, Christian Tetzlaff, Vladimir Mendelssohn, Roger Chase, Michael Flaksman, Jose Gallardo, Ensemble Oriol (Berlin), Persius Ensemble, y los miembros de los cuartetos Borromeo, Kronos, Aviv, Jerusalem y Verdi. En el otoño de 2007 ha colaborado con Silk Road Project de Yo Yo Ma en un concierto organizado por el Museo de Arte de Chicago.

Su experiencia como viola solista incluye conciertos con orquestas como Tonhalle Zurich, Sinfonica de Brandeburgo, Mannheimer Philharmoniker, Dallas Chamber Orchestra y Bach Collegium, bajo la batuta de directores como Bernard Haitink, Herbert Bloomstedt, Riccardo Chailly, Zubin Mehta, Myun Wun Chung, Kent Nagano, Paavo Jarvi, Robert Trevino, Enrique Batiz, Placido Domingo, Rossen Milanov, Alan Gilbert, , entre otros.

En sus conciertos actúa con varias violas hechas por Simon Schodler circa 1785, y llamada "El Tiempo" (The Time), Viola Italiana de Giuseppe Ghiacchetti di Roma, y últimamente con viola creada por "el Stradivari Ruso" Timofey Podgorny, llamada "El Poeta".



## KYRIL ZLOTNIKOV



**Kyril Zlotnikov Minsken jaio zen, Bielorrusian, musikari profesionalen familia batean, eta Bielorrusiako Estatuko Musika Akademian hasi zituen ikasketak Vladimir Perlin irakaslearekin. Israelen jarraitu zuen trebatzen Uzi Wiesel eta Hillel Zori irakasleekin, eta Jerusalemgo Musika eta Dantza Rubin Akademian gero, Michael Khomitzer irakaslearen zuzendaritzapean. Ikaslea zela, Kyril Zlotnikovek eskola magistraletan eta ikastaroetan parte hartu zuen Isaac Stern, Yo-Yo Ma, Natalia Gutman, Boris Pergamenschikow, Aldo Parisot eta Georgy Kurtag-en mailako musikariek.**

**Elkarlanean aritu da nazioartean ospe handia duten orkestrekin, hala nola Israelgo Orkestra Filarmonikoarekin, Jerusalemgo Orkestra Sinfonikoarekin, Ludwigsburgeko Orkestra Sinfonikoarekin, Gulbenkian orkestrarekin, Jerusalemgo West-Eastern Divan Orkestrarekin, eta ospe handiko zuzendariekin, besteak beste Daniel Barenboim, Zubin Mehta, Lawrence Foster, Asher Fish eta Simone Young-ekin.**

**Kyril Zlotnikov ohiko gonbidatua da ganbera-musikako jaialdi nagusietan, besteak beste, Proms, Verbier, Vancouver, Gstaad, Salzburg, Rheingau, Ravinia, Schleswig-Holstein, Jerusalem eta Schwetzingen-go jaialdietan. Errezital-emaile eta ganbera-musikari ospetsua da, eta gaur egungo artistarik aipagarrienekin partekatu du agertokia, besteren artean Daniel Barenboim, Andrés Schiff, Elisabeth Leonskaja, Pierre Boulez, Elena Bashkirova, Mitsuko Uchida, Natalia Gutman, Tabea Zimmerman, Miriam Fried, Michael Tree, Asher Fish, Nikolaj Znaider, Lang Lang, Itamar Golan, Martin Fröstekin. 2001etik 2012ra, Kyril Zlotnikov biolontxelo-jotzaile nagusia eta biolontxelo taldeko irakaslea izan zen West-Eastern Divan Orchestra taldean, Daniel Barenboim maisuaren zuzendaritzapean. Kyril Zlotnikovek Giovanni Battista Ruggieri biolontxelo bat jotzen du, 1710ekoa, bilduma pribatu batek eskuzabaltasunez bizitza osorako utzi diona.**

Nacido en Minsk, Bielorrusia, en el seno de una familia de músicos profesionales, Kyril Zlotnikov comenzó sus estudios en la Academia Estatal de Música de Bielorrusia con el Prof. Vladimir Perlin. Continuó sus estudios en Israel con el Prof. Uzi Wiesel y Hillel Zori, completando su educación musical bajo la dirección del Prof. Michael Khomitzer en la Academia de Música y Danza Rubin de Jerusalén. Mientras era estudiante, Kyril Zlotnikov participó en clases magistrales y cursos con músicos tan destacados como Isaac Stern, Yo-Yo Ma, Natalia Gutman, Boris Pergamenschikow, Aldo Parisot y Georgy Kurtag.

Kyril Zlotnikov ha actuado y se ha emitido como solista con orquestas de renombre internacional, como la Orquesta Filarmónica de Israel, la Orquesta Sinfónica de Jerusalén, la Orquesta Sinfónica de Ludwigsburg, la Orquesta Gulbenkian, la Orquesta del Diván del Este y el Oeste de Jerusalén. y disfruta de la colaboración artística con directores aclamados como Daniel Barenboim, Zubin Mehta, Lawrence Foster, Asher Fish y Simone Young.

Kyril Zlotnikov es un invitado habitual de los principales festivales de música de cámara, como el Festival Proms, el Festival Verbier, Vancouver, Gstaad, Salzburg, Rheingau, Ravinia, Schleswig-Holstein, los festivales de Jerusalén y Schwetzingen, entre otros. Zlotnikov, un destacado recitalista y músico de cámara, ha compartido el escenario con los artistas más destacados de la actualidad, como Daniel Barenboim, Andrés Schiff, Elisabeth Leonskaja, Pierre Boulez, Elena Bashkirova, Mitsuko Uchida, Natalia Gutman, Tabea Zimmerman, Miriam Fried, Michael Tree, Asher Fish, Nikolaj Znaider, Lang Lang, Itamar Golan, Martin Fröst. Desde 2001 hasta 2012, Kyril Zlotnikov fue un violoncelista principal y profesor del grupo de violonchelo en la WestEastern Divan Orchestra bajo la dirección de Maestro Daniel Barenboim.



Kyril Zlotnikov toca un violonchelo Giovanni Battista Ruggieri de 1710 que le fue prestado generosamente de una colección privada de por vida.